

**HIZKUNTZA TRATAERA INTEGRALA GARATZEKO
OINARRIAK ETA PROPOSAMENAK**

IKASTETXEENTZAT DOKUMENTUA

2020-2021 IKASTURTEA



Ebete hizkuntza-zerbitzuak

ebete

1-	Sarrera.....	2
2-	Kokatzea: Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua.....	3
3-	Hizkuntza Trataera Integrala.....	5
	3.1- Ikuspegi komunikatiboa.....	5
	3.2- Ikuspegi komunikatiboa lantzeko urratsak.....	6
	3.2.1- Irteera-profilak zehaztea.....	7
	3.2.2- Konpetentziak formulatzea.....	8
	3.2.3- Arazo-egoera zehaztea.....	9
	3.2.4- Ekintza komunikatiboa zehaztea.....	10
	3.2.5- Plan orokorra eta azken produktu eredua garatzea.....	11
	3.2.6- Ekintza komunikatiboa testu bihurtzea - Azken produktua lortzeko prozesua	11
	3.3- Testu generoen mapa eta arloen arteko lotura.....	14
4-	Hizkuntza Trataera Integratua.....	15
	4.1- Hizkuntzen alderdi komunak.....	16
	4.2- Testu-generoen mapa.....	17
5-	Baliabide lagungarriak.....	13
	5.1- Ulermen estrategiak.....	13
	5.2- Zer da erakusgarria: irteera profilen araberako adibideak.....	13
	5.3- Lehen Hezkuntzako adibide zehatz baten aurkezpena.....	13
	5.4- Bigarren Hezkuntzako adibide zehatz baten aurkezpena.....	13

1- Sarrera

Ikasle eleaniztunak izateko bidean ikastetxeetan Hizkuntza Trataera Integrala garatu nahi da.

Horri begira Irale bidezko ikastaro bat egin dute zenbait ikastetxek 2019-2020 ikasturtean. Horietako batzuk ebete hizkuntza-zerbitzuetako irakasleek gidatu dituzte. Lehen Hezkuntzako irakasleekin egin da lanketa.

Ikastaro honen bidez Hizkuntza Trataera Integralera hurbilpen bat egin nahi izan da:

- Gaia kokatu eta kontzeptuak argitu.
- Ikuspegi hori garatzeko hainbat urrats eman.
- Ikuspegi horren baliagarritasuna ikusteko saiakera praktiko batzuk egin.

Lanketa honen bidez planteamendu eleaniztuna garatu nahi da, euskara ardatz hartuta:

- Eskolan lantzen diren hiru hizkuntzak uztartu behar dira, baina euskarari arreta berezia jarri behar zaio: egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eleaniztasunerako bidean euskara erdigunean jarri behar da, horrela egiten ez bada, zaila izango da hizkuntza horri begira jartzen diren helburuak lortzea.
- Idatzizkoa eta ahozkoa landu behar dira, baina horrelako lanketak egiterakoan idatzizkoari garrantzia handiagoa emateko joera egon daiteke, eta, horregatik, jartzen da arreta berezia ahozkoaren lanketan ere.

Ondorengo orrietan Hizkuntza Trataera Integralera hurbiltzeko planteamendu bat aurkezten da, oinarrietatik proposamen praktikoetara, baita horiek ikastetxean uztartzeko jarraitu daitezkeen urratsak ere.

2- Kokatzea: Hizkuntza Trataera Integrala eta Hizkuntza Trataera Integratua

Hizkuntza Trataera Integrala garatzeko prozesuan, Hizkuntza Trataera Integratua ere kontuan hartu behar da. Biak norabide Berean doazen arren eta planteamendua bakarra den arren, helburu lorgarriak zehazteari begira lagungarria izan daiteke bereizketa bat egitea. .

Labur-labur, Berritzegune Nagusitik jasotako dokumentu batean horrela azaltzen dira bi ikuspegi horiek:


Hizkuntza Trataera Integrala	Hizkuntza Trataera Integratua
<ul style="list-style-type: none"> - ARLO GUZTIAK hartzen dira kontuan, ez hizkuntzak soilik. - Arlo guztietan lantzen da eta landu behar da hizkuntza: edozein arlotako irakasleak hizkuntza irakasleak ere badira. - IKUSPEGI KOMUNIKATIBOA oinarri hartuz lan egitea proposatzen da: zer landu, nola landu eta nola neurtu ikusteko tresna eraginkorra da. - Transferentziak landu behar dira: arloen arteko zubiak baliatu behar dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - HIZKUNTZA ARLOAK hartzen dira kontuan. - KOORDINATUTA ETA TRANSFERENTZIAK bilatuz lan egiten da. Hau da: hizkuntza batean lantzen denak bestean ere balio dezakeenez, koordinazio hori bilatzen da.

Diziplinaren alfabetizazioa ezinbestekoa da ikasleen arteko ekitatea eta ikasketetan arrakasta izateko. Horretarako, **erreferentzia komunak** zehaztu eta **arloen arteko zubiak** eraiki behar dira. Horrexetarako baliatu behar dira HEZIBERRI eta Europar markoa

HEZIBERRI eta EUROPAR MARKOAK ikasleek zein hizkuntza konpetentzia garatu behar dituzten zehazten dute, baita hizkuntza-konpetentzia horien barruan zer landu behar den eta zer hartu behar den kontuan ere. Are gehiago, lanketa metodologia komunikatiboa erabiliz egitea ere proposatzen da. Hauek lirateke erreferentzia komunak. Arloen arteko zubiak eraikitzeko, batetik, testu-generoen lanketa proposatzen da eta, bestetik, arloen arteko transferentziak zehaztea.

Hizkuntza Trataera Integratuaren bidez Heziberrik eta Europar Markoak zehazten dutena eskolara egokitu daiteke: ziklo bakoitzean eta hizkuntza bakoitzerako irteera profilak zehaztu, testu generoekin lotu, testu genero horien lanketa hizkuntzen artean koordinatu eta transferentziak nola egingo diren adostu.

Hizkuntza Trataera Integralaren bidez hizkuntzen lanketari ikuspegi oso bat ematen zaio: edozein arlo hizkuntzaren bidez lantzen da eta hizkuntzak arlo guztietan lantzen dira. Gainera, arlo bakoitzak bere hizkuntza berezia ere badu. Hizkuntza arloetan lantzen dena eta beste arloetan lantzen dena osatu eta indartu egiten dira. Hizkuntzaren trataera integrala zehaztea beharrezkoa da, soilik era horretan ziurtatuko baita arlo bakoitzeko edukiak ulertu egiten direla. Ulertu ezean, ez dago ezer adierazterik, eta adierazi ezean, ez dago edukien eskurapena ebaluatzerik.



3– Hizkuntza Trataera Integrala

3.1– Ikuspegi komunikatiboa

Hizkuntzarekin egiten dugun ekintza orori esaten diogu ekintza komunikatiboa.

Ikuspegi komunikatibotik lan egiten badugu:


- Ikasleei komunikatzeko gaitasuna edo komunikagaitasuna garatzen lagunduko diegu: egiten jakin behar dute.
- Proiektuen bidez lan eginda zein testu-liburu edo beste metodologia batzuen bidez lan eginda ere, hizkuntzaren ikuspegia behar bezala txertatu ahal izango dugu. Metodologia batzuekin errazagoa izan daiteke ikuspegi hau txertatzea, baina urratsak guztietan eman daitezke.
- Zer den erakusgarri eta transferigarri ikusiko dugu: ekintza komunikatiboa testuinguru zehatz batean garatzen da eta modu egokian gauatzeko erabiltzaileak testuak ondo taxutzen eta interpretatzen jakin behar du baliabide egokien bidez (plan orokorra, interaktibotasuna, sekuentziak, konexioa, izen- eta aditz-kohesioa...) eta adierazpide linguistikoak behar-beharrezko izango ditu (alderdi fonologiko, ortografiko, morfosintaxiko, semantiko eta lexikoa).
- Transferentziak landu ahal izango ditugu.

3.2– Ikuspegi komunikatiboa lantzeko urratsak


Ikuspegi komunikatiboa lantzeko urratsak honakoak izango lirateke:

- 1.– Irteera–profilak zehaztea
- 2.– Konpetentziak formulatzea
- 3.– Arazo–egoera zehaztea
- 4.– Ekintza komunikatiboa zehaztea
- 5.– Plan orokorra eta azken produktuaren eredia garatzea
- 6.– Ekintza komunikatiboa testu bihurtzea

Ondoren, sei urratsak eskema orokor eta teoriko batean laburbilduta.



Goiko eskema teorikoa adibide praktiko batera honakoa izan daiteke:



3.2.1 – Irteera–profilak zehaztea

Irteera–profilak zehazteak ikasleek zer gaitasun izan behar duten jakiten lagunduko digu, eta beraz, zer den landu behar dena eta ebaluatu behar dena. Hauxe litzateke lehenengo urratsa.

Irteera–profilak zehazterakoan, Heziberri eta Europar Markoa hartuko ditugu erreferentzia moduan.

Europar markoak hizkuntza–gaitasunen sailkapen bat egiten du: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. Sailkapenak ez du hizkuntzaren ezagutza deskribatzen, hainbat egoeretan hizkuntza hori erabiltzeko gaitasuna baizik.

A1–A2–B1: Egoerak testuingurua du lagun eta ezinbesteko. Komunikazio ez berbala lagungarria da. B2–C1–C2: Funtzio kognitiboak erabiltzea eskatzen dute (identifikatu, justifikatu, kalkulatu...).

Helduen hizkuntza–alfabetatzera sortutako sailkapen bat da, baina hezkuntzara ere egokitu da. Erreferentzia moduan erabili behar dira, Heziberri ez duelako zehazten etapa eta ziklo bakoitzean gaitasun maila jakin bat lortzea beharrezkoa denik. Baina ikasketak aurrera eramateko, zein hizkuntza–gaitasun behar diren ikertu da Europar Markoaren barruan, eta honakoa da erreferentzia hori entzun, idatzi, mintzatu eta irakurtzeko:

- 12–13 urte: B1
- 15–16 urte: B2

Horrek izan behar luke bertako bi hizkuntza ofizialei dagokienez hartu beharreko erreferentzia, eta zerbait baxuagoa atzerriko hizkuntzari dagokionez.

Lehen Hezkuntzari dagokionez, norabide berbera izanik, etapa amaierarako irteera profila horren arabera zehaztu beharko litzateke, eta ziklo bakoitzerako irteera profilak horri begirako mailakatze moduan, hau da, B1 era heltzeko A1 eta A2 ere modu mailakatuan zehaztu beharko lirateke Lehen Hezkuntzako ziklo eta irakasmailetan.

Europar Markoak, lehen esan bezala, 6 mailako sailkapen bat egiten du, izan ere, maila bakoitzean hizkuntza komunikaziorako gaitasuna bost dimentsio edo trebetasun hauetan egituratu da:

- Ahozko ulermena
- Ahozko elkarrekintza edo elkarreragina eta ahozko ekoizpena
- Idatzizko ulermena
- Idazmena

3.2.2– Konpetentziak formulatzea

Ikastolen elkartean honela definitzen dute konpetentzia:

- Testuinguru jakin batean, atazak (egin beharrak) taxutzeko edota hainbat egoerari eraginkortasunez aurre egiteko pertsonak duen ahalmena edo abilezia, ezagutzak eta jarrerak une berean eta uztarturik baliatuz.
- Horri begira:
 - Arazo eta egoera ezberdinei aurre egitean ondorioztatzen da gaitasuna, burututako ekintzaren edota emandako erantzunaren emankortasun-mailatik.
 - Ekintza horiek gauzatzeko, ezinbestekoak dira subjektuaren jarrera jakin batzuk.
 - Ekintzei aurre egiteko, behar-beharrezkoa da prozedurak eta abildadeak menderatzea.
 - Ezagutzetan oinarriturik bideratzen dira ekintzak.
 - Aurreko guztia integratuz burutzen dira ekintzak.

Konpetentziak formulatzeko lagungarri izan daiteke honako eskema¹ kontuan hartzea:

- Zer?: erronka berriei aurre egitea (lehengo adibideari helduta: “Lagunei edo familiakoei ohar edo gutun pertsonalak egitea”); argi adierazten du zein izan daitekeen ekintza komunikatiboaren testu-mota, edo zehatzago esanda, testu-generoa.
- Zertarako?: ekintza komunikatiboaren helburua zehaztu behar da hemen (lehengo adibideari helduta: “helburua jakinaren gainean jartzea edota beharrak asetzea denean”).
- Nola?: gauzatzeko tresnak, prozedurak edo estrategiak aipatu behar dira (lehengo adibideari helduta: “informazioa eskatuz edo emanaz”).

Hizkuntza konpetentzia modu egokian formulatzeak pista asko ematen dizkigu, ikasleek, gerora garatu behar duten ekintza komunikatiboa, modu arrakastatsuan gauza dezaten.

¹ Eskema hau da Proiektuen xede-hezitzailea edo justifikazioa zehazteko erabiltzen dena da, izan ere, guk hona ekarri dugu lagungarri zaigulako konpetentziak ondo zehazteko.

3.2.3– Arazo–egoera zehaztea

Berritzegune nagusiko arazo–egoeren ezaugarriei buruzko txostenean jasotzen den moduan:

Arazo–egoerak planteatzen dizkiegunean, ikasleek, banaka edo taldeka, informazioen multzo bat antolatu behar dute, testuinguru baten barruan, zeregin jakin bat egiteko, non ez baita oso begi–bistakoa aldeztatik zein den irtenbidea.

Ariketa konplexu mota bat da, oztopo bat aurkezten duena, erronka bat. Hura gaindituz gero, ikasleek gauza berriak ikasiko dituzte. Kontua da ikasleek arazo–egoera horren irtenbidea aurkitzea, testuingurutik kanpoko diziplina–edukiak saihestuz.

Azken finean, arazo–egoera irakaskuntza–ikaskuntza prozesuaren abiapuntua da, bai eta konpetentziak ebaluatzeko oinarria ere.

Formulatutako konpetentzia arazo–egoeraren bitartez eskuratuko da, eta horretarako, honakoa hartu behar da kontuan:

- Arazo egoerak desafio bat suposatzen du, ikasleen interesekin lotuta dago eta egoera erreal da. Produktua erreal eta zabaltzekoa izan behar da. Erronka inplikaturiko hizkuntza konpetentzien sintesia da.
- Arazo egoerak, beraz, ekoizpen bat ekarriko du.

3.2.4- Ekintza komunikatiboa zehaztea

Ekintza komunikatiboa osotasun dinamiko bat da, horregatik, ekintza eta bera gauzatzen duen testua aztertzean, faktore dinamikoen bila joan behar dugu.

Ekintza komunikatiboaren bost faktore dinamiko nagusiak:

- Enuntziatzailea: Nork egiten du testua? Nola baldintzatzen du horrek testua? Erregistroa, lehen pertsona agertzea (ni, gu...), aditu papera hartzen du?
- Enuntziataria: Norentzat egiten du? Publikoa aditua da? Publikoa ezaguna da? Nola aldatuko litzateke beste norbaitentzat balitz?
- Xedea: Zein da ekintza komunikatiboaren helburua? Azaltzea, konbentzitzea, deskripzio zehatza... Horrek ere markatu egiten ditu zenbait gauza. Adibidez, konbentzitzeko estrategia argumentatiboak, azalpenetan berresateak eta ulertu den ziurtatzeko moduak...
- Testu-mota eta testu-generoa: Zein da testu-mota? Azalpena, instrukzioa... Zein da testu-generoa? Gutuna, mahai ingurua... Edukiak: zeintzuk dira testu honetan ageri ohi diren edukiak? Hau testu eredugarriak ikusiz eta hausnartuz lantzen da.
- Erabilera esparrua: aukera ematen digu arlo horretan agertzen diren testu, lexiko, egoera eta abarren inguruan hausnartzeko. Kanala: irratiz, bideoz, telefonoz edo zuzenean... ezberdin egiten dugu. Erregistroa: informala, ezagunen artekoa ala formala, ezezagunen artekoa?

ENUNTZIATZAILEA	
ENUNTZIATARIA	
XEDEA	
TESTU-GENEROA	
ERABILERA	

Ekintza komunikatiboa ondo zehaztea behar-beharrezkoa da:

- Ikasleek zer egin behar duten argi eduki dezaten: zer eskatzen diegu zehazki?
- Zer den erakusgarri zehaztu ahal izateko: ekintza komunikatibo hori aurrera eramanez ahal izateko hizkuntza-baliabide eta gaitasun batzuk beharko dituzte, eta horiek zeintzuk diren irakasleak argi izan behar du.
- Zer eta nola neurtuko den zehaztu ahal izateko: eskatzen zaienaren eta lantzen denaren arabera izan behar dute errubrikek.


3.2.5- Plan orokorra eta azken produktu eredua garatzea

Plan orokorraren bidez azken produkzioari lotutako eskema orokor bat izango dugu.

Prozesuan zehar eta hasieran ikasleei azaltzeko tresna baliagarria izango da. Irakasleek ikasleen adina kontuan izanda azken produktu “eredua” sortzea oso egokia izan daiteke hurrengo urratsak emateko. Ez bada produktua sortzen ere testu horrek izango dituen nondik norakoak argi izatea komenigarria da.

- o Planifikazioa kontuan hartu: Plan orokorra eta sekuentziak
- o Testualizazioa kontuan hartu: Testu antolatzaileak, izen eta aditz-kohesioa, lexikoa...
- o Ahots enuntziatzaileak eta modalizazioa kontuan hartu

3.2.6- Ekintza komunikatiboa testu bihurtzea - Azken produktua lortzeko prozesua



a. Lehen produkzioa:

- Azken produkzioan landuko den testu-genero bera izango da.
- Ez du zertan azken produkzioan landuko den gaiarekin lotura zuzena izan behar, baina bai komeni da faktore dinamikoak eta plan orokorra bistaratzeko eta horrekin lotutako produkzioa sortzea.
- Ahozkoa bada, grabatzea komenigarria da.
- Lehen produkzio hau aurre-ezagutzarekin lotzen da.

b. Zer da erakusgarri? Azken produkzioa modu egoki batean egiteko zer irakatsiko diegu?

Sortutako testu “eredugarria”, lehen produkzioa eta mailari dagokion hizkuntza- profila kontuan hartuta zehaztuko da erakusgarri dena.

Planifikazioa kontuan hartu: Plan orokorra eta sekuentziak. Sortuko dugun azken produktuaren atalak, ordena...

Testualizazioa kontuan hartu: Testu antolatzaileak, izen eta aditz kohesioa, lexikoa...

Ahots enuntziatzaile eta modalizazioa kontuan hartu: Gorputz jarrera, tonua, interakziorik dagoen... 5 aldagaiek markatuko digute atal hau.

c. Trebatzea: Azken produktua egin aurretik oso garrantzitsua da erakusgarri direnak kontuan hartu eta ikasleak trebatzeko bideak lantzea.

Trebatzea bi norabidetan egitea proposatzen da:

Testu eredugarriak: Testu eredugarrietan erakusgarri direnak bistaratzeko dinamikak proposatuz. Adibidez: bideo batean testu antolatzaileak bilatu, idatzizko testu bateko plan orokorra (atalak) identifikatu, audio batean aditz denborak identifikatu...

Hizkuntza jolasak: Erakusgarri direnak dinamika erakargarri/dibertigarri bidez proposatuz. Hiru formatan:

- Hasierako fasea: dinamika bideratuak
- Erdiko fasea: dinamika erdi bideratu / erdi libreak
- Azken fasea: dinamika libreak

Trebatzea modu kontzientean egiten dela ziurtatzeko (ikasketa esanguratsua) ebaluazio baliabideak erabili. Autoebaluazio, koebaluazio, ...

d. Azken produkzioa: 5 aldagaiak, plan orokorra eta trebatzeko tartean egindakoak

bistaratu ostean egin. Hau da errepasso orokorra egin ostean azken produkzioa egin. Ahozkoa bada, grabatzea egokia izan daiteke

e. Ebaluazioa: ebaluazio jarraitua bideratzea proposatzen da. Prozesuko atal desberdinetan ikasketa esanguratsua izateko ikasleei baliabide desberdinak eskainiz. Zer den erakusgarri horretan bistaratuko ditugun gaitasunen lorpen maila ebaluatzea izango da helburua. Bukaerako testu-generoa sortzeko behar dituzten baliabide komunikatiboei loturako ebaluazioan ipiniko dugu fokoa.

Lehen produkzioa: Zer dakigu? Zer egiten dugu ongi? Zer hobetu dezakegu? Aurre ezagutzari begirako errubrika edo baliabideak eskaini.

Zer da erakusgarri? Zer ikasiko dugu? Zein da erronka? Erronka argi dago? Egingo duguna argi dagoela ziurtatzeko baliabide desberdinak erabili ditzakegu.

Trebatzea: Zer ikasi dut? Zer egiten dut/dugu ongi? Zer hobetu dezaket? Trebatze atal honetan ere ikasketa esanguratsua izaten ari den ikusteko baliabide desberdinak erabili daitezke.

Azken produkzioa: Zer ikasi dut? Ikaslearekin prozesua bistartzeko momentu egokia izan daiteke. Lehen eta azken produkzioa eta egindako bidea bistaratzuz. Baliabide desberdinak erabili

daitezke (paper zorroa, elkarrizketa,...)

Hizkuntzaren ebaluazioari lotutako ebaluazioa da hemen jaso dena. Proiektu bidezko metodologian bestelako gaitasunen ebaluazioarekin uztartu beharko litzateke ebaluazio hau.

f. Finkatzea: Hizkuntza-arlo ez den batean egin daiteke. Azken produkzioa egin eta denbora tarte batera egitea interesgarria izan daiteke. Ikasketa esanguratsua izan den ziurtatzeko egokia da.

3.3– Testu generoen mapa eta arloen arteko lotura

Testu-generoen mapak erakusten du ikasmaila bakoitzean, hiru-hileko bakoitzean eta hizkuntza bakoitzean zer landuko den, baita idatziz edo ahoz landuko den ere.

Proiektu bidez lan egiten den ikastetxeetan, proiektuaren azken produkzioak testu-genero horrekin lotuta egon behar du. Beraz, proiektuaren lanketa osoan zehar hizkuntzaren lanketa aurreikusitako helburu eta planteamenduekiko koherentea izango da. Izan ere, batzuetan azken produkzioa proiektuaren azken produktuaren aurreko ekintza komunikatibo bat da; adibidez, azken produkzioa da beste gela batzuetako ikasleei ahoz azaltzea historiaurreko bizimodua zelakoa zen, baina azken produktua izan daiteke historiaurreari buruzko erakusketa bat. Kasu honetan irakasleei ulertarazi behar zaie azken produktu horri lotuta azken produkzio bat egon behar dela.

Testu-liburuekin lan egiten den ikastetxeen kasuan, berriz, arloetan ekintza komunikatiboak sortu behar dira eta testu-generoen mapa kontuan hartuz egin beharko da hori. Hau da: hirugarren zikloko lehen hiru-hilekoan argudio-testuak landu behar badituzte, gutxienez hizkuntzakoa ez den arlo batean hiru-hileko horretan edo hurrengo batean argudio-testu bat oinarri duen ekintza komunikatibo bat landu beharko lukete testu-liburuko edukiekin lotuta. Ekintza komunikatiboaren garapena arlo horietan egingo litzateke, eta erakusgarri diren hizkuntza-baliabideak hizkuntza-arloetan landuko lirateke.


4- Hizkuntza Trataera Integratua

Hizkuntzak irakastearen helburua honakoa da: erabiltzaile gaituak lortzea, ahoz zein idatziz, testu anitzak eta askotarikoak ulertzeko zein sortzeko gaitasuna duten pertsonak izatea. Hizkuntzak modu egokian, koherentean eta zuzen erabiltzera iristea.

Hizkuntza Trataera Integratuaren bidez hizkuntzen arteko koordinazioa bilatzen da, metodologia partekatuz, beharrezko ez diren errepikapenak saihestuz eta kontzientzia eleanitza garatzeko aukera gehiago sortuz.

Horretarako bi atal nagusi hartuko dira kontuan:

- Transferigarritasuna: testu generoen lanketa hizkuntzen artean
- Planifikazioa: testu-generoen mapa



Iturria: Cummins (Hizkuntz gaitasun komunak)

4.1 – Hizkuntzen alderdi komunak

Hizkuntza Trataera Integratura bidean honakoa jakin beharra dago: zeintzuk diren hizkuntza bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak eta zeintzuk hizkuntzen alderdi komunak. Hizkuntzak ikasteko eta menderatzeko prozesuak antzekoak dira hizkuntza guztietan. Hizkuntza guztiek eduki komunak dituzte. Besteak beste: testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak, ikasteko eta komunikatzeko estrategiak, kontzeptuzko edukiak (testu-moten eta generoen ezaugarriak...), jarrerazko edukiak (hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko) eta diskurtso literarioaren ezaugarri orokorrak.

Zer da transferigarria?	Zer ez da transferigarria?
Testuak ulertzeko prozedurak	Ortografia arauak
Testuak planifikatzeko prozedurak	Ahoskera
Hizkuntzak ikasteko estrategiak	Lexikoa
Hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak	Perpausen egituraketa eta sintaxia
Hizkuntzaren kontzeptu orokorrak (adjektiboa, izena, aditzak, aditzondoak)	Hitzen morfologia (hitzak, atzizkiak, aurrizkiak, funtzioak...)
Ahozko azalpenak ekoizteko prozedurak	Testu antolatzaileak eta lokailuak
Narrazio-sekuentzien ezaugarri nagusiak	
Azalpen-sekuentzien ezaugarri nagusiak	
Testu-generoen (gutuna, txostena, iritzi artikulua, ahozko azalpena...) ezaugarriak	
Testu literarioaren ezaugarriak	

* *Berritzeguneek landutako taula*

Taula honetan ikusten da hainbat elementu transferigarriak direla, baina hauek guztiek soilik testualizazioari begiratzen diote. Hemendik kanpo daude transferigarriak diren eta garatzea komeni den beste hainbat elementu ere:

- Hizkuntza-trebetasun kognitiboak: arloko edukien ulermena ziurtatzeko, ezinbestekoak dira hizkuntzak trebetasun kognitiboetan duen eragina aintzat hartzea. Eta trebetasun kognitibo horiek garatzeko, ezinbestekoak dira ulermen eta adierazpen estrategiak aintzat hartzea eta lantzea. Horiek ere transferigarriak dira.
- Testuinguruarekin lotutako arloak: erabiltzailearen asmoa, erabilera-esparruak eta abar.

Testu-motak eta testu-generoak, terminologia hautua:

Testuak sailkatzeko ahalegina egiten da testu-mota eta testu-generoen bidez.

Multzo eta azpimultzo asko egin daitezke testuak sailkatzerakoan: testu-generoak, testu-genero multzoak, testu-motak, testu-moldeak eta abar. Autoreen edo irakaskuntza sareen arabera terminologia ezberdinak erabiltzen dira testuei buruz hitz egiterakoan. Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik hautu hau egin da, baina soilik praktikotasun aldetik erabilgarria dela baloratu delako:

Testu-motak: Testuan nagusitzen den sekuentzia edo funtzioaren arabera egindako sailkapena. Funtzio nagusi bat egon arren, bestelako sekuentziak ere antzeman daitezke, eta sekuentzia desberdin haiek guztiak batera testuaren xede nagusira makurtzen dira. Zehazki: azalpen-testuak, argudio-testuak, deskribapen-testuak, narrazio-testuak, instrukzio-testuak eta testu-literarioak.

Testu-motak aztertzerakoan funtzio nagusiari begiratu behar zaio baina testuingurua kontuan hartzea ere behar beharrezkoa da. Hainbatetan ez da hori kontuan hartzen.

Testu-generoa: ezaugarri eta helburu zehatzak dituzten testuak, gizartean izan ohi diren hizkuntza erabilerari esker finkatutakoak eta komunikazio egoerekin lotutakoak. Testu-moten multzoetan koka daitezke, baina, funtsean, 2 mundu diskurtsibotan kokatu daitezke: azalpenaren mundua eta kontaketa mundua.

Zer da testu-generoen mapa?

Testu-moten eta testu-generoen sailkapena kontuan hartuta, eskolarako planifikazio bat egitea: mapa moduko baten bidez testu-generoen lanketarako sailkapen bat egitea, eta horren bidez bakoitza noiz eta zein hizkuntzatan landuko den zehaztea.

Zergatik oinarritu testu-generoen lanketan?

- Gizarten gertatzen den benetako erabilera oinarri hartu behar dugulako, eskolaren esparruan aritu arren.
- Eguneroko hizkeratik hizkera akademikorako bidea egin behar delako.
- Derrigorrezko eskolaldiaren bukaeran ikasleek testu-genero jakin batzuk menderatu behar dituztelako.
- Arloek testu-generoak langai hartuz, arloen arteko transferentziak zehaztu daitezkeelako.

Testu-motak hainbat momentutan eta hainbat modutara lantzen dira edo landu daitezke, baina testu-generoen maparen bidez gutxieneko bat bermatzen da:

- Zeintzuk eta noiz landuko diren modu antolatu eta esplizituan.
- Hizkuntzen artean nola banatu eta koordinatuko diren.
- Aurretik ere landu izan bada hizkuntza horretan edo beste batean, nola egingo den aurretik egindakoarekin lotura.

Zein dira irizpideak testu-generoen mapa egiterakoan?

Testu-generoen mapa egiterakoan banaketa orekatu bat egin daiteke: kontzeptuen errepikapena, berrikustea eta kontzeptu berriak gehitzea bermatu daiteke modu horretan.

Ikuspegi horizontala eta progresioa zaintzea:

Edukien errepikapena eta progresioa kontuan hartu behar dira: ikasmaila bakoitzean lantzen dena hizkuntzen artean koordinatzeko eta hurrengo ikasmailetan lantzen denean garapena planifikatu ahal izateko.

Hori kontuan izanik, honakoa da planteamendua:

- Hiru-hileko bakoitzean eta hizkuntza bakoitzean zein testu-mota eta zein testu-genero landuko den zehaztea. Horrek ez du esan nahi, hizkuntzetan hori soilik landu behar denik, baina gutxienez eta modu koordinatu batean zer landuko den zehazten da.
- Maila guztietan landu behar dira testu-mota gehienak eta testu-genero anitzak. Ikasleen adina kontuan hartu behar denez, behar bada LHko lehen mailetan testu-mota batzuk lantzea zailagoa izango da eta beste batzuk pisu handiagoa hartuko dute. Heziberriko oinarriek, erabiltzen ditugun testu-liburu edo metodologiek eta aurretik dugun praktikak hartu behar ditugu kontuan hau erabakitzerakoan.
- Hizkuntza guztietan landu behar dira testu-mota guztiak. Lanketa koordinatzera begira aukera bat honakoa izan daiteke: testu-mota bera lantzea hiru hizkuntzetan hiru hileko bakoitzean, baina testu-genero ezberdina izatea. Hau da, oinarrizko ezaugarri berdinak izango lituzkete lanketa koordinatu ahal izateko, eta testu-generoari dagozkion berezitasunak landuko liriateke hizkuntza bakoitzean. Baina aldi berean izan beharrean, hiru hilabeteen arabera banatzea ere aproposa izan daiteke. Erabaki hau mapa osatzen duen irakasle taldeak hartu beharko du.
- Azken ekoizpenak egiterakoan zeintzuk izango diren ahoz eta zeintzuk idatziz zehaztu behar da.

Sailkapen adibidea

Dolz eta Schnevly, 1997

Erabilera- eremuak	Testu-genero multzoak	Ezaugarri nagusiak	Testu-generoak
Literatur kultura	Kontaketa autonoma	Enuntziatzailearekiko autonoma da. Fikzioa eta intrigaren bidez, narrazioa.	Ipuin zoragarria, alegia, abenturazko kontakizuna, zientzia-fikziozko kontakizuna, txistea, esketxa, eleberria, asmakizuna, haur abestia...
Giza-ekintzen dokumentazioa eta memorizazioa	Kontaketa interaktiboa	Enuntziatzailearekiko inplikatu da. Esperientziaren kontaketa denboraren ardatzean kokatuta.	Bizitzarako kontakizunak, bidai- kontakizunak, norberaren egunerokoak, testigantzak, autobiografia, gertaerak, erreportajea, dokumentala, albistea, kronika, kontakizun historikoa, biografia...
Gizarteko gaien inguruan eragitea	Argudiatzea	Jarrera hartzea, finkatzea, negoziatzea	Debatea, iritzi-artikulua, argudiozko elkarrizketa, gutuna, eskaera-gutuna, editoriala, errekurtsioa, saiakera, iragarkia
Ezagutzen transmisioa eta eraikuntza	Azaltzea	Jakintzaren aurkezpena	Hitzaldia, ahozko aurkezpena, aditu bati elkarrizketa, artikulua entziklopedikoa, txosten zientifikoa
Argibideak eta portaerak arautzea	Preskribatzea	Egintzak deskribatzea. Instrukzioak eta preskripzioak. Portaerak arautzea.	Errezeta, arautegia, joko eta jolas arauak, iragarpen testuak, jarraibideak...

Definizioak, deskribapena, iruzkinak, eskemak, azalpenak eta abar: bestelako testuetan txertatuta daude eta testu-zati moduan izendatzen dira. Sekuentziak dira eta hainbatetan diskurtso-tipo propioa ere badute (deskribapena, azalpena...) eta funtzio jakinak bete ditzakete.

Euskarriak, laburpen grafikoak, adierazpen argigarriak, laburbildumak (grafikoak, katalogoak, horma-irudiak, kartelak, web orriak...): helburuaren arabera egituraz eta formaz oso aldakorak.

Erabiliko den sailkapena

Adams 1987 (*Lasarte-Oriako Berritzegunetik jasotako sailkapena*)

Sailkapen hau erabiltzearen hautua egin da Berritzeguneetatik proposatzen dena hau delako eta ikastaroetan parte hartzen ari diren ikastetxeen metodologietara egokitzeko errazagoa ikusten delako.

TESTU-MOTA edo funtzio nagusiak	ZER DA?	TESTU-GENEROAK
NARRAZIOA	Denbora tarte baten gertatzen diren ekintzen kontaketa. Kontaketa (erreal) edo narrazioa (fikziozkoa).	Kontaketa: biografia, berria, erreportaia, komikia, bakarrizketa, antzerkia, egunerokoa, gogoeta, artikulua, aurkezpena, erreportaia, testigantza, esperientziak, pasadizoa edo anekdota, ametsak, denbora tarte batean egindako gauzak (urtea, goiza...) Narrazioa: ipuina, nobela, kondaira, txistea pelikula, abestia..
DESKRIBAPENA	Gizaki, gauza, prozesu edo fenomeno baten ezaugarri fisiko, psikologiko nahi bestelakoak agertu, erakutsi, adierazi edo zehazten dituen.	Gutuna, eskaera gutuna, korreo elektronikoa, postala, argazki oinak, horma-irudiak, definizioa, fitxa, eskema, laburpena, aurkibidea, katalogoa...
ARGUDIO TESTUA	Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen tesi bat egiaztatzeke zein errefusatu edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiek osaturiko testua.	Iritzia, erabakiak taldean, elkarrizketa, eztabaida, mahaingurua, iragarkia, slogana, kritika, zuzendariari gutuna, eslogana, iragarkia...
AZALPEN TESTUA	Edozein gaiari buruz, zerbait edo ezer ez dakien hartzaile batentzat, gertakizun edo fenomeno baten azalpen objektiboa egiten duen testua.	Oharra, gonbidapena, plana azaldu, dokumentala, katalogoa, gida turistikoa, mapak, definizioa, hitzaurrea, dosierra, aurkezpena, azalpena, informazio liburuxka, curriculum, akta, artikulua, gutuna, deialdia, egiaztagiria, eguraldiaren
INSTRUKZIO TESTUA	Ekintzaren bat gauzatzeko, orientabideak emanaz, aginduak, argibide edo arauak adierazten dituen testua.	Errezeta, eguraldiaren iragarpena, abisua, joko arauak, tutorialak, konsignak, erabilpen instrukzioak, jarraibideak, dekalogoak, azterketa...
TESTU LITERARIOA	Funtzio ludikoa izanda ere balio sozial eta kulturalak transmititzen dituen testua.	Kantak, erromantzeak, koblak, bertsoak, aho-korapiloak, poemak, antzerkiak...

Hizkuntza-arloetako testu-generoen mapa adibidea

		EUSKARA			GAZELANIA			INGELESA		
			Testu-mota	Testu-generoa		Testu-mota	Testu-generoa		Testu-mota	Testu-generoa
LH1	Lehen hiru hilekoa	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Bigarren hiru hilekoa	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
LH2	Hirugarren hiru hilekoa	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Lehen hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
LH3	Bigar hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Hiru hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
LH4	Lehen hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Bigar hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
LH5	Hiru hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Lehen hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
LH6	Bigar hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		
	Hiru hiru h.	Ahoz			Ahoz			Ahoz		
		Idatziz			Idatziz			Idatziz		

5– Baliabide lagungarriak

- Hizkuntzaren ikuspegia eguneratzearen beharra
- **Ulermen estrategiak**
- Testu-moten ezaugarri nagusiak
- Transferentzien inguruko adibideak
- **Zer da erakusgarria: irteera profilen arabera adibideak**
- **Adibide zehatz baten aurkezpena**

Sei baliabide lagungarri lantzen dira baina hiru erantsi dira dokumentu honetan. Oraindik ez daude behar bezain garatuta baina ikastaroetarako lan tresna moduan balio dute. Beste hirurak ere lantzen dira ikastaroetan, baina momentuz ez da dokumenturik erantsi.

5.1 – Ulermen estrategiak

Hizkuntzaren Trataera Integrala modu egokian lantzeko ulermenaren gaia oso kontuan hartzeko atala da.

Ulermen strategiaren gaia sarri irakurketari lotu zaio soilik edo gehien. Hurrengo dokumentuan ulermen estrategiak modu zabalago batean landu nahi izan dira eta entzumenari lotutako ulermenari ere lekua egin nahi izan zaio. Izan ere, belarritik sartzen zaigunak berebiziko garrantzia du, entzunez ikasten dugu hitz egiten.

ZERGATIK IRAKATSI ULERMEN ESTRATEGIAK?

Irakasleek ulermena nola gertatzen den ulertu eta ikasleak gaitasun komunikatiboetara modu arrakastatsuan iristeko ulermenari lotutako ikasketa esperientziak planifikatzeko gai izatea da ulermen estrategiak erakustearen helburu nagusia.

Irakasleen zeregin funtsezkoetako bat ikasleei ezagutza banku bat eraikitzen laguntzea da. Entzumen eta irakurketa prozesuetan modu esplizitu eta kontzientean egiteak ezagutza bankura jotzeko bideak zabalduko dizkie ikasleei.

Testuen ulermen prozesua hitzak deskodetzeko gaitasuna baino askoz gehiago da. Irakurleak modu eraginkorrean estrategia multzo bat integratu behar du. Erakustaldi esplizituak andamiaje eraginkorrak emango dizkie ulermen estrategiak garatu eta aplikatzeko estrategia multzoak eskuratzen joango direlarik.

Estrategia multzoa bereganatuta, entzule eta irakurle eraginkorrek askotan irakurketa-estrategia hauetako asko automatizatu egiten dituzte eta modu inkontzientean aplikatzeko gai dira.

EBALUATZEA EZ DA TREBATZEA. ZERGATIK EZ DUZU ULERTU?

Non dago zuk ez ulertzeko arazoa? Goazen zertan lagundu diezazukedan aztertzerara. Hurrengo batean horrelako bat entzun edo irakurtzean zuk klabe batzuk jasota izan eta errezago ulertzera laguntzeko.

TESTU EGOKIAK AUKERATU

INPUT EGOKIAK BEHAR DIRA. HORRETARAKO TESTU EGOKIAK AUKERATU BEHAR DITUGU

- Testuak dituen zailtasunak/aukerak: Zailtasunen arabera eta ze aukera ematen digun kontuan izan. Ze helburu bilatzen dugu testu honekin?
 - Adibidez: Euskalkian eta azkar hitz egiten duen emakume heldu baten audio bat. Ez dugu testuko dena ezagutu edo ulertu nahi, aipatzen dituen elikagaiak zeintzuk diren aztertu nahi dugu soilik.
- Ikasleen ezagutzei egokitutakoak: Edukia zein hizkuntza maila ikasleen ezagutzetara egokitu. Errezegiak ere ez daitezela izan, lantzen diren gaiak adinera egokituak...
- Ulergarria, hurbila, interesekoa: Gustagarriak, ez daitezela aspertu, ez daitezela txapa izan, ...
- Ahal dela testu erreala
 - *Kaixo! Kaixo!*
 - *Kaixo!*
 - *Zer moduz?*
 - *Oso ondo nago*

*Egunerokoan elkarrizketa ez da zehazki modu honetan ematen.

TESTU ERREALAK SORTZEKO/LORTZEKO:

- Pelikula bateko zati bat, errealitateko egoera bat grabatu... (adibidez bi pertsonen arteko eztabaida). Hau egin dezakegu baina fokalizatzea zaila da, gauza asko gerta daitezke eta.
 - Gidoi bat egitea eta bi aktorek irakurri baina hori idatzizko testua da. Hori normalean ez genduke horrela esango.
 - Egoera irudikatu, irizpide batzuk eman eta hori grabatu. Dendari bat zara, erostera doaz eta garestiegia dela esaten dizu erosleak. X erabiltzea komeni zaizue (adibidez aholkuak)...
- Testuen hurrenkera, zereginen arabera, ez testuen zailtasunaren arabera B1 edo B2rako testu berak balio dezake. Ariketa edo eskatzen zaiena izango da desberdina eta zailtasunean ere hor beharko luke aldea.

TESTUARI BURUZKO EZAGUTZAK: HAU LANDU BEHAR DA!

Ikasleekin hau lantzea garrantzitsua da. Ez beti baina egin beharko genuke. Honen gaineko hausnarketa bideratzea komeni da.

- Zein testuingurutan gertatu den
- Zeintzuk diren edukiak
- Nola egituratuta dauden
- Zein hizkera mota duen
- Zein den jarrera enuntziatiboa
- ...

*Testu eredugarriarekin lotzen da. Guk erakutsi nahi diegun testu propio hori lantzen denean hausnarketa hau egitea oso garrantzitsua da.

ENTZUMENA

- TREBETASUNIK GARRANTZITSUENA/GUTXIEN LANDUA
Nola ikasi duzue hitz egiten? Entzunez ezta? Belarritik sartzen da gehiena. Input asko datoz entzumenetik.
 - EGIA/GEZURRA.
 - a. Egia da, adibidez berriak irakurtzen duzun albiste bat lasai landu dezakezula (azpimarratu, zalantzak argitzeko bideak topatu...). Irratian albiste bera entzunda ez daukazu gauza bera egiteko astirik.
 - i. Horregatik entzumena lantzean entzunaldi bat baino gehiago egin behar dira. Estraktu desberdinetan: lehengo entzumen orokor bat, gero zehaztapenetara jo eta bukatzeko oraindik eta zehatzagoetara.
 - b. Idatzita izateak babes bat moduan ematen du, kuadernoan dago eta ematen du kuadernoan dagoelako badakidala baina ez da egia.
 - EBALUATZEA EZ DA TREBATZEA
 - AHOZKOAREN GARAPEN EGOKIRAKO FUNTSEZKOA: Belarritik input asko sartzen zaizkigu eta bestelakoak ere lantzen laguntzen du horrek: Entonazioa, fonetika... Ahozkoaren garapenerako garrantzia berezia hartzen du entzumena lantzean.
 - Gure hezkuntza ereduari aurrera pausuak emanteko funtsezkoa da entzumena lantzea. Idatzizkoa baino ahozkoa eta beraz irakurketako ulermena baino edo bezain beste behintzat entzumena.
 - Horretarako input aberatsagoa, zabalagoa eta intentsuagoak behar dira. Askotan irakaslearen inputa jasotzen dute entzumenari lotuta, hau gainditu behar da.
 - Eta haien artean entzutea ere oso garrantzitsua. ZENBAT ENTZUTEN DUTE IKASKIDEEK ELKAR? Hori ere behar dute. "Bai" "Egunon" "goizean" "oso pozik", "ez dakit", "ez dut ekarri"... eta hori da egun horretan esan duen guztia. Eta ondorioz, ingurukoek ikaskideengandik entzun duten guztia. Eta ez du besterik behar klasean egoteko.
 - EZ DA PASIBOA. Normalean ahozkoa pasiboki lantzen da, eta idatzizkoa osterik ez (idatzi, azpimarratu, laburpena, eskema bat egin...).
 - Ahozkoan: entzun, galderak aurretik irakurri eta gero idatzi. Eskema hau erabiltzen da sarri baina hori baino askoz gehiago/hobeto landu dezakegu.
- Orain momentuan hainbat gauza ari zarete lantzen niri ulertzeko. Baina ez dira kontuan hartzen.

Beste apunte batzuk:

- HH eta 2. Hizk: TARTE ISILA. INPUT UGARI JASO ETA ULERTU BAINA SORTU EZ.
 - Inputak jaso ta jaso baina ez da sortzen. Ulertu bai baina produzitzeko oraindik ez. A1/A2 fase isil asko egon daitezke eta errespetatzea ere komeni da. Sortzeko prozesuetara pasatzeko ulermen fasea ondo menperatuta dagoela ziurtatu eta ostean lagundu. TXIKIENERI INPUT asko eman, ez horrenbeste produzitzean. Input anitzak ematea oso garrantzitsua.
 - “Hizkuntzaren jabe sentitzeak gizartean eragiteko aukera. BOTEREA”
- PROZESU KOGNITIBO UGARI MARTXAN: fonetika, entonazioa, hiztegia ikasteko... Entzumenean gauza asko aktibatzen dira.

Hipotesiak etengabe egiten dira, ez da hain pausatua baina bada azkarra, arin egiteko abilezia lantzen da.

Behin baino gehiago entzutea oso garrantzitsu da, ia buruz ikasteraino. Eta gure bizitzan ere horrela egiten dugu. Beste bati entzundakoak erabiltzen ditugu, beste batek esandakoak kopiatzen ditugu sarri. Idatzizkoan ez da horrela gertatzen, hori ere kontuan hartu. Ezinezkoa da ikasleei testuak idatziz, idatziz, idatziz eman eta benga, orain hasi erabiltzen. Hori ezinezkoa da! Edo badute zeri/zeini kopiatu edo ez dago zereginik.

IRAKURKETA

Lehen entzuten ziren hainbat kontu, ez dira horrela:

- **Sinboloen deskodetzeaz haratago doa.** Ez da letrak jakitzea eta listo. Letrak elkartzen ditu, hitzak irakurtzen doa eta listo.
- **Unitatea** ez da hizkia
- **Abiadura** ez da garrantzitsuena
- **Hitzak esatea ez da ulertzea**
- **Irakurketa ozenak ulermenean trebatzen du.**

ULERMEN MOTAK. Ulermen mota desberdinak daude. Ez dugu berdin irakurtzen egunkaria kafetxo bat hartzen dugun bitartean, edo gailu berri baten instrukzioak, edo kartel bat...

- ESTENSIBOA
- INTENTSIBOA
- AZKARRA/GAINETIKOA
- NAHIGABEA

*Normalean irakurketari lotuak ikusi ditugu baina ahozkoan ere ulermen mota hauek badaude. Kotxean entzuten zoazen hori, ulermen estentsiboa. Ia zer esan duen ez dakit zeinek ez dakit zeri buruz, ea irakasleak zenbat bai esaten dituen? Entzumen intentsiboa ere egin dezakegu elementu konkretuen bila goaz.

Klasean ere ulermen mota denak kontuan hartu behar dira. Beti ez dugu irakurketa edo ulermen intentsiboa egin behar. “entzun hau eta bihar hitz egingo dugu”, “irakurri testutxo hau, gai honen inguruan zer datorkizue burura?”...

ULERMEN ESTENTSIBOA

- Ideia nagusia eurenganatzea
- Testua berregitea
- Zati baten transkripzioa/kontakizuna egitea
- Azaldutakoak aztertzea
- Konparatzea eta analizatzea
- Testu generoaz hausnartzea
- ...

ULERRMEN INTENTSIBOA

- **Ñabardurak antzematea:** Adibidez: fijatu euskalkian nola egiten duen eta kasu egin nola erabiltzen duen ez dakit zer.
- **Datuak inferitzea:** Egon daitezten datu klabe horiekin lagundu. Ulertzen lagundu.
 - o *Zenbat arraultza jaten dituzue astean?* Guk azkar egingo dugu ariketa: egunero bi arraultza jaten badituz hamalau, baina egunero zenbat jaten dituen jakin behar duen hortan lagundu beharko diot. Guretzat logikoa den lotura hori askotan ikasleak ez du egin eta hortan lagundu behar zaie.
edo
 - o *“bera euskaldun berria zen eta unibertsitatera joan eta ondoko laguna Ondarrukoa tokatu zitzaion”* eta ikasleak hemen ez du ezer ikusi... eta? Ba Ondarrun modu “berezian” hitz egiten dutela eta akaso euskaldun berri horri ulertzea kostatuko zaiola azaldu behar zaie.
- **Testuingurua ezaugarritzea:** Zergatik hitz egin du horrela? Norentzat ari da?...
 - o **NORK, NORI, ZER eta ZERGATIK/ZERTARAKO?**
- **Aurreikuspenak egitea**
- **Errepikapenak egitea:** Egitea oso egoki den kontu bat adibidez: 3 aldiz entzun eta orain nik gelditu eta zuek amaitu
- **Hitzak asmatzea**

Apunte batzuk:

Irakurketa estentsibo batean ulermen galdera intentsiboak sartzen dira sarri. Adibidez: Liburu bat irakurtzeko eskatu eta galdera: protagonistak zer egin zuen x eguneko goizean?

Edo bi entzunaldi egin ostean testuan dauden bi galdera oso oso zehatz.

Landu nahi den ulermen mota kontuan izatea oso garrantzitsua da proposatzen den ariketa ere bide horretan egiteko.

Testu modu intentsiboan landu bada aurretik modu estentsiboan egin da.

SORTZAILEAK

Testu baten bitartez guk zerbait egin behar dugu. Oso erabilgarria. Arreta ez dugu horrenbeste hizkeran jartzen, edukietan jartzen da arreta gehiago.

- Irrati saioa antolatzea
- PPT baterako informazioa lortzea
- Komiki bat egin
- Kantak ikastea/kantatzea
- Deskripzio batetik marrazki bat egin
- Instrukzioetatik tramankulo bat muntatu
- ...

ENTZUMENEAN eta IRAKURMENEAN LANTZEN DIREN ABILEZIAK. ULERMENEAN LANTZEN DIREN ABILEZIAK.

- **Ezagutu/errekonozitu**
- **Aukeratu**
- **Interpretatu:** zer esan nahi duen, esaten denaz gainera zer esaten duen...
- **Aurreikusi:** Ume bati behin uuu! (lehengoan) Egin eta berriz uuuu egin!! hirugarrenean uuu egin. Laugarrenean barre egiten dizu, baina ez da grazia egiten diolako baizik bere hipotesia bete delako da.
- **Inferitu.** Lehen esan duguna, inferitu zer esan nahi den horrekin.
 - o Barne edo kanpo inferentziak. Testuan bertan egiten direnak edo kanpoko inferentzia egitea. (barne adibidez: eta horregatik esaten dizut... horregatik lehenago egin dago zezeren inguruan egiten dut inferentzia.
- **Gogoratu.** Memoriaren lanketa asko egiten da honen bidez.
- **Loturak egin.** Ideien artean. Barne loturak eta kanpo loturak.
- **Ondorioak atara**

Edozein ulermen lantzeko 3 ALDI proposatzen dira

PROZESUA DA GARRANTZITSUA EZ EMAITZA. ULERMENEAN LAGUNTZEKO ENTRENAMENDUA BEHAR DUTE, ESTRATEGIAK BEHAR DITUZTE eta HORTAN SUPER ABILAK IZATERA HELDU.

- **Testua lantzerakoan gutxitan jasotzen dugu zerbait ezer aurreikusi gabe.**
- **Testua lantzean epe luzeko zein laburreko memoriak aktibatzen goaz.**
- **Testua amaitutakoan jasotakoa asimilatu eta memorian berregin.**

AURRETIK. ZER EGIN DEZAKEGU?

- **Helburuak zehaztu:** Ikasleek beti jakin behar dute zer eskatuko zaien. Zer egin behar duten jasotakoarekin

- **Testu motari buruzko hausnarketak**
Aurrezagutzak aktibatu: Gaiaren inguruko, ideia jaza (kontzeptu mapa sortu), hiztegia landu...
- **Lexiko berezia landu.** Hasi aurretik azaldu daitezkeen hitz ezezagunen inguruan hitz egin dezakegu. Lehengotik erraztu. Lehengo irakurraldian sartu, hitz ezezagun asko badago ulermen estentsiboa ere zaildu dezake. Irakurtzeko gogoia kendu dezake honek.
- **Tesutinguruari buruzko informazioa eman:** pertsonaiak aurkeztu, tokia, unea...
- **Aurreikuspenak:** Aurreikuspenak eginarazi ,testua auresatea...
- **Espektatibak sortu**
- **BALIABIDEAK**
Titulua
Marrazki/Argazkiak
Testu modua
Autorea, data...
Marrazkiak

BITARTEAN.

- **Ulermen galderei erantzun**
- **Taula bat betetzen joan**
- **Mapa batean ibilbidea jarraitu**
- **Entzundakoa irudiekin lotu**
- **Inferentziak egin**
- **Testuinguruaz jabetu**
- **Aurreikuspenak berretsi edo baztertu**
- **Tarteko laburpenak, sintesiak egin** (aurreikuspen berriak egin tartean ere izan daiteke)
- **Ideien jerarkiaz jabetu**
- **Ideien hurrenkera ulertu**
- **Zailtasunak gainditu**

OSTEAN.

4. **Helburuez jabetu.** Idazleak hau idatzi duenean ze helbururekin egin du?
5. **Aurreikuspenak bete diren konprobatu**
6. **Distantzia hartu**
7. **Sintesia egin.** Norberak bakarrik egin beharrean talde txikietan edo talde haundian egitea ona da.
8. **Laburpena egin**
9. **Egokitasuna ebaluatu.** Ondo egin du edo ez? Ez da apur bat makarra izan?
10. **Testu generoaz hausnartu**
11. **Ikasitakoaz hausnartu**

12. **Nork bere esperientziekin lotu.** Inoiz pasatu zaizu halakorik? Inok esan dizu inoiz hain gordin?
13. **Erabilitako estrategiez hausnartu**
14. **Pertsonaia edo atal jakinei buruz hausnartu**
15. **Amaiera aldatu**

TESTUAK EZIN DIRA BEHIN BAKARRIK ENTZUN

5.2– Zer da erakusgarri

A1 Zer da erakusgarri?		
Kontuan izanda	Landu daitezke	Ikusi behar dugu
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen arteko harremanean eta solaskid earen inguruko munduan kokatua: senide, lagun. Mundu erreala, fisikoa. - Xedea: informazioa ematea – eskatzea, iritziak, sentimenduak, solaskid earengan 	<ul style="list-style-type: none"> - Hitz edo esapide errazak: zenbakiak, prezioak... - Giza harremanak eta konplimendua: adeitasunezko hitz eta esapide errazak - Informazioa ematea eta eskatzea: argibide errazak (sarrerak, bidai txartelak...), aurkezpen laburrak eta galdera erantzun errazak (nor den, non bidez den...), oinarrizko jarraibideak, ohiko seinaleak, kartelak, oinarrizko inprimakiak - Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea: ohar eta mezu pertsonal laburrak. - Solaskidearengan eragitea: agindu 	<p>Mintzamina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egokitasuna: Hitz eta esapide jakin batzuen bidez erantzuten du. Solaskidearen menpe dago nahi duena ulerrarazteko. Argibideak eta azalpenak eskatzen ditu. • Koherentzia eta kohesioa: Hitz eta esapide bakartuen bidez erantzuten du. Oinarrizko juntagailu batzuk (<i>eta, a/a</i>) ere erabiltzen ditu. Zeinuak eta bestelako komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu • Jariotasuna: Eten asko egiten ditu. Galde-erantzunen bidez komunikatzea lortzen du. Kosta egiten zaio ondo ahoskatzea. Ohikoak dira esaldi amaitu gabeak. • Aberastasuna: Ikasitako esaldiak erabiltzerakoan zenbaitetan akatsak egiten ditu. Eragozpenak ditu fonema jakin batzuk ahoskatzeko.
		<p>Idazmina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egokitasuna: Aukeratutako hitz eta esapideak baliatzen ditu: egoki lotzen zaizkie testuinguruari eta

<p>eragitea</p> <p>- Gaiak: norberaren ezaugarriak, etxea, aisialdia, norabidea, lana, herria...</p>	<p>sinpleak</p> <p><u>Adierazpide testualak</u></p> <p>Maila honetan ez dira ematen</p> <p><i>Alderdi linguistikoa falta da</i></p>	<p>ekintzari; ulergarria da horretarako hartzaileak birritan-edo irakurri behar badu ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Koherentzia: Ideiak koherenteak dira elkarren artean eta xedearekin. Informazioa ondo antolatua dago. • Kohesioa: Hitzez eta perpaus bakunez osatzen du diskurtsoa eta lotura lineala izan ohi da. • Aberastasuna: -- • Zuzentasuna: Buruz ikasitako baliabide mugatu eta sinpleak erabiltzen ditu. Ortografia zuzena du. Akatsak egiten ditu zenbaitetan: komunztadura, aditzaren aspektua, jatorrizko hizkuntzarekiko interferentziak eta abar. <p>Entzumena: Eguneroko harremanetan eta testuinguru ezagunetan, landutako edukien hitz arruntenak eta oinarrizko esapideak ulertzen ditu baina zenbaitetan errepikatzeko edo argibideak emateko eskatzen du.</p> <p>Irakurmena: Oinarrizko hitz eta testuak (ohar laburrak, mezu elektronikoak...) ulertzen ditu. Sarritan testuinguruaren, irudien eta ezaugarri grafikoen laguntza behar du.</p>
--	---	--

A2 Zer da erakusgarri?

Kontuan izanda	Landu daitezke	Ikusi behar dugu
<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen arteko harremanean eta solaskid earen inguruko munduan kokatua: senide, lagun, zerbitzu ne (dendak ...). Mundu erreala, fisikoa. - Xedea: informazioa ematea-eskatzea, iritziak, sentimenduak, solaskid earengan eragitea - Gaiak: 	<ul style="list-style-type: none"> - Hitz edo esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora erreferentzia... - Giza harremanak eta konplimendua: adeitasunezko hitz eta esapide errazak, agurtu, barkamena eskatu, mesedeak, zoriondu, interesa adierazi, goraintziak eman, gauza onak opa... - Informazioa jasotzea: komunikabideetako ohar eta iragarkiak - Informazioa ematea eta eskatzea: argibide errazak, aurkezpen laburrak (norden, non bizi den...), jarraibideak (toki batetik bestera nola joan, gauza bat non dagoen...), datu pertsonalak, leku-ordutegia-data, eguraldia eta iragarpena, prezioa, deskripzioak pertsona eta leku, eguneroko kontuez informazioa, denboran zehar gertatutako kontatzea, iraganeko ekintzak kontatzea, gustuak azalpen laburrak zerbitzuetan... - Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea: ohar eta mezu pertsonal laburrak, baieztatu/ezeztatu, adostasuna/ezadostasuna, ezintasuna, zerbitzuen balorazioa, norbaiti buruzko iritzia eman/eskatu, proposamenei buruzko iritzia, balorazio eta iritzi sinpleak... - Sentimenduak: ezustea, poza/tristura, aldarteaz informazioa eman, gustukoa den edo ez adierazi... - Solaskid earengan eragitea: laguntza eskatu/ 	<p>Mintzamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egokirasuna: Elkarrizketak gauzatzeko aukeratzen dituen baliabideak egoki lotzen zaizkie solaskid eari eta xedeari. Zalantza batzuk izaten ditu, baina komunikazio arrakastatsua da. - Koherentzia eta kohesioa: Elkarreraginean eta azalpen labur-laburretan nahikoa informazio eskaintzen du. Ideiak ordenatuta daude eta ez dira errepikatzen. Testu-antolatzaileak erabiltzen ditu. Estrategiak erabiltzen ditut elkarrizketan parte hartzeko (txanda hartu, utzi) eta ulertzen ez duena adierazteko. - Jariotasuna: Elkarrizketetan esan nahi duena ondo adierazten du. Batzuetan abiadura moteldu behar. Parte-hartze luzeetan errepikapena eta birformulazioak behar, baina hariari eusten dio. - Aberastasuna: Gai arruntei buruz elkarrizketan aritzeko baditu baliabideak. Hutsuneak keinuen bidez edo

<p>norberaren ezaugarriak, etxea, aisialdia, norabidea, lana, herria, lekua eta norabidea, giza haremanak, gorputza eta osasuna, hezkuntza ikasketak..., ersoketarik. elikadura (ordutegiak, menuak), garraioa, ospakizunak...</p> <p>- Egiturak: Enuntziatu sinpleak. Galde-erantzunak.</p>	<p>eskaini, aginduak eman, arau erraz eta laburrak, proposamen laburrak, gonbidapenak egin, debekatu, erregutu, egitekoa proposatu, asmoak adierazi, aholkukak eman/eskatu</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontaktak, gertaerak, albiste laburrak... - Elkarrizketa sinpleak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion - Deskribapen errazak <p style="text-align: center;"><u>Adierazpide testualak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Interaktibotasuna: Pertsonalak (ni, zu,gu), denborazkoak (orain, gero, gaur...), espazialak (hemen, hor, han...) - Konexioa: Hizketa antolatzaileak (ze..., eta bueno...), emendiozkoak (eta, ere, bestalde), aurkaritzakoak (baina, ordea), denbora antolatzaileak (goizean, orduan, ondoren), hautakariak (bestela, ala), ordena-adierazleak (lehengo, ondoren, alde batetik, azkenik), zehatzaileak (adibidez). - Puntuazioa: galde-harridura ikurrak, bi puntuak, puntua, etenpuntuak, koma. - Aditz-kohesioa: azalpen eta kontaktak adizkiak (dator, etortzen da, zetorren, etortzen zen, etorri da, etorri zen), ekintza adizkiak, bestelako adizkiak. - Modalizazioa: adizkiak (uste izan, pentsatu, jakin, iruditu), iritzi-adberbioak (agian, ziur, seguru), adjektiboak (graduatzailerak), adjektiboak (ederra, polita, txarra), adizkiak (behar izan, nahi izan), adjektiboa+t(z)ea, aditza (gustatu, poztu, damutu, lotsatu, maite izan), adberbioak (agian, zorionez, tamalez), 	<p>forma orokorrak erabiliz (giltza-gauza...) betetzen ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zuzentasuna: Mezua helarazterakoan egitura multzo zuzen erabiltzen ditu. Ahoskera eta doinu egokiak. Batzuetan akats sistematikoak. <p>Idazmena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egokitasuna: Komunikazioa arrakastatsua da. Tarteka ez du erregistroa bereitzen. Ekintza komunikatiboaren testuinguruari ondo erantzuten dio. - Koherentzia: Informazioa ematerakoan ideia eta informazio nagusia ondo ulertuko da. Gaizki ulerturen bat egon daiteke. - Kohesioa: Esaldi errazak lotzeko ondo erabiltzen ditu testu-antolatzaileak eta denbora-erreferentziak. Oinarriz oinarrizko puntuazio markak erabiltzen ditu loturak egiteko. - Aberastasuna: Ekintza komunikatiboa gauzatzeko baliabide eta estrategia nahikoak ditu. Badu nahikoa lexiko. Sarritan mezua egokitu eta hitzak bilatu behar ditu. - Zuzentasuna: Akatsek ez dute esanahia eragozten. Zuzen erabiltzen ditu egoera
--	---	---

	<p data-bbox="448 757 850 786">harridura perpausak (nire ustez...)</p> <p data-bbox="448 880 810 909"><i>Alderdi linguistikoa falta da</i></p>	<p data-bbox="1074 385 1390 568">eta gaien lexikoa eta esapideak. Akatsak: aditz-denborak nahastea, subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura...</p>
		<p data-bbox="978 607 1385 790">Entzumena: Eguneroko bizitzako esperientzia-esparruen barruan, solaskidearen adierazpena ondo ulertzen du. Tarteka errepikatzeke eskatzen du.</p>
		<p data-bbox="978 831 1410 1099">Irakurmena: Maila honetako formularioak, mezuak, oharrak, jarraibideak eta abar irakurtzean zailtasun handirik gabe ulertzen ditu eta ideia nagusiak erraz antzematen ditu. Hitz ezezagunei buruzko hipotesiak egiten ditu</p>

B1 Zer da erakusgarri?

Kontuan izanda	Landu daitezke	Ikusi behar dugu
<p>- Pertsonen arteko harremanetan (gertuko zein urruneko), solaskid earen inguruko munduan eta aisialdi, lan edo maila akademiko harremana</p> <p>- Xedea: informazioa ematea-eskatzea, iritziak, sentimenduak, solaskid earengan eragitea</p>	<p>- Hitz edo esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora erreferentzia...</p> <p>- Giza harremanak eta konplimendua: ... zoriondu, interesa adierazi, goraintziak eman, gauza onak opa... arreta eskatzea, aholkuak, medikuaren gomendioak, argibideak.....</p> <p>- Informazioa jasotzea: komunikabideetako ohar eta iragarkiak</p> <p>- Informazioa ematea eta eskatzea: ... deskripzioak pertsona eta leku, eguneroko kontuez informazioa, denboran zehar gertatutako kontatzea, iraganeko ekintzak kontatzea, gustuak azalpen laburrak zerbitzuetan...hurbilekoen deskripzio fisiko eta psikologikoak, prozedurei buruzko azalpenak, gertaera edo sentipenen deskribapenak.....</p> <p>- Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea: ... zerbitzuen balorazioa, norbaiti buruzko iritzia eman/eskatu, proposamenei buruzko iritzia, balorazio eta iritzi sinpleak... arrazoi laburrak, gaiei buruzko azalpen eta argibideak, jarreraren berri eman, ideiak-pertsona-lekuak alderatzea, zalantza adieraztea, zerbaiti buruzko balioespen edo kexuak..</p>	<p>Mintzamena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egokitasuna: Eguneroko testuinguru ezagunetan bere jarduna ondo egokitzen du: nori zuzentzen zaion, zertarako eta abar. Gaiari tarteka ihes egiten dio eta ondoren itzuli. Batzuetan errepikapenak eta itzulinguruak behar ditu. • Koherentzia: Elkarrizketa arruntak ondo burutzen ditu. Hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola amaitu. Diskurtsoa hari nagusi baten inguruan antolatzen du baina ez du ondo josten (denbora, espazioa, prozesua...). • Kohesioa: Informazioa ondo eskaintzen du eta ez du errepikapenik behar, nahiz eta batzuetan zenbait nahasketa edo izan. • Jariotasuna: Testuinguru ezagunetan bere jarduna jarraitua eta soltea da. Testuinguru berrietan zailtasunak izaten ditu adiera eta egitura egokiak bilatzeko edo zuzentzeko. • Aberastasuna: Gai ezagunen inguruan aritzeko behar besteko hizkuntza-baliabide multzoa du. Erantzun nahiko luzeak ere ematen ditu. Gai abstraktuetan zailtasunak ditu eta errepikapen edo itzulinguruak behar ditu.

<p>- Gaiak: norberaren ezaugarriak, etxea, aisialdia, norabidea, lana, herria, lekua eta norabidea, giza haremanak, gorputza eta osasuna ... herria, zientzia eta teknologia (instrukzioak), ekonomia eta merkataritza jarduerak (kopuruak, gustuak..), ondasunak eta zerbitzuak (informa</p>	<p>- Sentimenduak: ezustea, poza/tristura, aldarateaz informazioa eman, gustukoa den edo ez adierazi, harridura, maitasuna, beldurra edo kezka, etsipena, esperantza, haserrea...</p> <p>- Solaskidearengan eragitea: ... debekatu, erregutu, egitekoa proposatu, asmoak adierazi, aholkukak eman/eskatu, konbentzitu argudiatu...</p> <p>- Kontaketak, gertaerak, albisteak, ipuin klasikoak, kronikak (kirola...), errezetak, jatetxeetako kartak, gutunak (senitarte, lagun, eskari...), egitarauak, turismo gidak, whatsapp, emailak...</p> <p>- Elkarrizketa sinpleak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion, familia eta lagunarteko solasaldi eta eztabaidak</p> <p>- Deskribapenak</p> <p style="text-align: center;"><u>Adierazpide testualak</u></p> <p>- Interaktibotasuna: Pertsonalak (ni, zu,gu, plural hurbila), denborazkoak (gaur, iaz, hurrengoan, datorren urtean...), espazialak (hor, han, hementxe, hantxe...)</p> <p>- Konexioa: Hizketa antolatzaileak (ze...), emendiozkoak (eta, ere, baita...ere), aurkaritzakoak (baina, ordea, aldiz, dena den), ondoriozkoak (beraz, hau dela eta...), denbora antolatzaileak (orduan, behin batean,</p>	<p>• Zuzentasuna: Eguneroko testuinguru ezagunetan gai orokor eta arruntez hitz egiteko nahiko baliabide ditu akats batzuk egin arren. Hitz egin aurretik pentsatu behar izaten du. Akats gehienak koiunturalak dira. Diskurtso ulergarria da, jatorrizko hizkuntzaren interferentziak ere egoten dire arren. Ñabarduretarako erdarakadak erabiltzen ditu.</p> <p>Idazmena:</p> <p>• Egokitasuna: Edukia gaiari eta eskatzen zaionari eskatutakora egokitzen du gehienetan. Erregistro formala eta informala bereizten ditu. Informazioa eta trataera egoki erabiltzen ditu.</p> <p>• Koherentzia: Diskurtsoen egitura eta pasarteen antolaketa ondo egokitzen zaizkio testu-generoari. Ideiak gaiari lotuta eta koherenteak dira. Aurrerabidea lineala da eta behar adinako informazioa eskaintzen du. Batzuetan zailtasunak ditu bigarren mailako ideiak garatzerakoan.</p> <p>• Kohesioa: Oinarrizko testu-antolatzaileak ondo erabiltzen ditu. Aditz-denbora ondo erabiltzen du. Oinarrizko puntuazio markak ondo erabiltzen ditu (puntuak, koma...)</p> <p>• Aberastasuna: Testuari dagokion hedadura emateko behar besteko baliabideak ditu. Molde bereko joskerak erabiltzeko joera du. Erdal kutsua batzuetan antzematen zaio. Nahiko lexikoa du zehatz aritzeko.</p> <p>• Zuzentasuna: Ohiko ekintza eta funtzioak betetzeko behar beste</p>
--	---	---

<p>zio guneak.. .)</p>	<p>gaur egun, bitartean), birformulatzailerak (alegia, hau da, hobeto esan, ondorioz, azken batean) hautakariak (bestela, ala), ordena-adierazleak (lehengo, ondoren), zehatzaileak (adibidez, esaterako).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Puntuazioa: galde-harridura ikurrak, bi puntuak, puntua, etenpuntuak, koma. - Aditz-kohesioa: azalpen eta kontaketa adizkiak (dator, etortzen da, etorri da, etorri zen), ekintza adizkiak, aginte adizkiak, orain geroa (etorriko da), bestelako adizkiak. - Ahots enuntziatzaileak: estilo zuzena, zehar estiloa. Menderakuntza .(e)la, -(e)nik, -(z)eko, marra luzea, komatxoak. - Modalizazioa: adizkiak (uste izan, iruditu), iritzi-adberbioak (agian, ziur, seguru, omen), adjektiboak (graduatzaileak), adjektiboak (ederra, txarra), adizkiak (behar izan, nahi izan, etor daiteke), adjektiboa+t(z)ea, aditza (gustatu, lotsatu, maite izan), adberbioak (agian, tamalez), harridura perpausak (nire ustez...) <p><i>Alderdi linguistikoa falta da</i></p>	<p>baliabide erabiltzen ditu. Testua ulergarria da. Hutsegite sistematiko batzuk ikus daitezke: egituren arteko interferentziak, hiperzuzenketa... Ortografia eta puntuazio markak gehienetan zuzenak dira. Hutsegiteak gehienetan koiunturalak eta ez dute eraginik esanahian.</p> <hr/> <p>Entzumena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahoz emandako instrukzio arruntak lehendabizikoan ulertzen ditu. Jatorrizko hitzuneekin aritzean horiek moldatu egin behar dute erritmoa edota ahoskera. Gaia aldatzean tarteka gal daiteke. Intonazioaren laguntzaz zenbait elementu afektibo jasotzen du (haserrea, txantxa...) <hr/> <p>Irakurmena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maila honi dagozkion testu-generoak (oharrak, eskutitzak, artikulua...) bereizten ditu eta lehen irakurtaldian antzematen ditu ideia nagusiak eta xeheak. Tarteka ñabardura edo ideiarenekin bat gal dezake.
-------------------------------	---	---

5.3– Lehen Hezkuntzako adibide zehatz baten aurkezpena

Ikasmaila: 2.maila

Arloa: Matematikak

Testu-generoa: Instrukzio-testua

Ekintza komunikatiboa:

Taldeka (lauko taldeak) gorputz geometriko bat sortu behar duzue eta gero, klase batean, horren azalpena eman taldeko beste kideei. Azalpena ematen diezuenean besteek gorputz geometriko hori eraiki beharko dute.

Faktore dinamikoak:

ENUNTZIATZAILEA	Ikasleak , irakaslearen rol-ean
ENUNTZIATARIOA	Ikaskideak
XEDEA	Gorputz geometrikoak sortzea eta azaltzea
TESTU-GENEROA	Instrukzio testua
ERABILERA ESPARRUA	Akademikoa

Plan orokorra (Zer ikusi beharko genuke? Zein atal behar ditu?):

ATALA	ZER AGERTU BEHAR DU?	ZERTARAKO?
Taldearen aurkezpena	-Taldekideak aurkeztu	Agian ez da beharrezkoa. Guztiak ondo ezagutzen dira.
Kokapena	-Zein gorputz geometriko azalduko dieten esatea	Gaia kokatzeko eta azalpenari abiapuntua emateko
	- Gustura egingo dutela opatzea	Gertutasuna emateko, erakargarria egiteko
	-Gorputz geometriko hori deskribatzea	Zer egin beharko duten irudikatzeko
	-Zergatik aukeratu duten azaltzea	Gertutasuna emateko, erakargarria egiteko
Jarraibideak	-Behar dugun materiala zerrendatzea	Besteek gorputz geometrikoa egin ahal izateko
	-Jarraibideak ematea	Gorputz geometrikoa besteek egiteko
Galdera/ erantzunak	- Zalantzak argitzea	Gorputz geometrikoa ondo eraikitzeke

Irteera profilak kontuan hartuz, zer izan daiteke landu beharko genukeena? Zer iruditzen zaizue?

A1/A2/B1 mailako zer landu dezakegu? Zer da erakusgarri?

- 1- Hitz edo esapide errazak: zenbakiak, prezioak...
- 2- Giza harremanak eta konplimendua: adeitasunezko hitz eta esapide errazak
- 3- Informazioa ematea eta eskatzea: argibide errazak (sarrerak, bidai txartelak...), aurkezpen laburrak eta galdera erantzun errazak (nor den, non bidez den...), oinarrizko jarraibideak, ohiko seinaleak, kartelak, oinarrizko inprimakiak
- 4- Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea: ohar eta mezu pertsonal laburrak.

5- Solaskidearengan eragitea: agindu sinpleak

Zer landuko dugu?

Plan orokorreko atala	Zer landuko da	Hizkuntza-arloa	Idatziz/Ahoz
Zein gorputz geometriko azalduko dieten esatea	Guk aurkeztuko dizuegun gorputz geometrikoa da	Euskara	Ahoz
		Gaztelania	Ahoz
Gustura egingo dutela opatzea	Erraz egingo dutela uste dugu, gustatuko zaizuela espero dugu...	Euskara	Ahoz eta Idatziz
Gorputz geometriko hori deskribatzea	Laukia da, borobila da, bost alde ditu...	Euskara	Ahoz
		Gaztelania	Idatziz
		Ingelesa	Ahoz
Zergatik aukeratu duten azaltzea	Forma hau aukeratu dugu... delako/duelako (Jolasteko balio, oso polita, gauza dekoratibo...)	Euskara	Ahoz
Behar dugun materiala zerrendatzea	Forma hauek egiteko hau behar dugu: - Goraizak, papera...	Euskara	Ahoz
Jarraibideak ematea	Lehendabizi, ondoren, amaitzeko... Moztu behar duzue, itsasi behar da...	Euskara	Idatziz
		Gaztelania	Ahoz
		Ingelesa	Idatziz
Zalantzak argitzea	Zalantzaren bat baduzue? Zerbait galdetu nahi duzue?...	Euskara	Ahoz

Aurre-produkzioa nola egingo dugu?

Euskara arloan egingi dugu. Bikoteka egin behar dute.

Bikote bakoitzak errezeta sinple sinple bat aukeratuko du (agian ona izan daiteke gaia ematea: adibidez sandwitx edo bokadilo bat)

Bikote bakoitzak janari horren argazki edo marrazki bat ekarri behar du.

Aurre-produkziorako ekintza komunikatibao:

Bikote bakoitzak besteei zer aukeratu duen, zergatik aukeratu duen eta prestatzeko urratsak zein diren aurkezte behar die. Ondoren, aukeratutako hori paretean itsatsiko dugu.

Treatzea: Euskara

Zein gorputz geometriko azalduko dieten esatea	<i>Guk aurkeztuko dizuegun gorputz geometrikoa da</i> (Deskribapenarekin lotutako ariketa)
Gustura egingo dutela opatzea	Lanketarako dinamika: 1-2-3-4-5-6-7 <i>Erraz egingo dutela uste dugu, gustatuko zaizuela espero dugu..</i>
Gorputz geometriko hori deskribatzea	<i>Laukia da, borobila da, bost alde ditu...</i> Kutxa itsua: Pantailan hainbat irudi jarriko ditugu. Bost objektu izango dira baina hiru aldagairekin jokatu dugu: forma, materiala eta tamaina. Adibidez: Edalontziak. Handia-ertaina-txikia. Plastikozkoa-kristalezkoa-paperezkoa. Kutxa eskuz esku pasako da musika geratu arte. Eskuetan duena galdezka hasiko da. Berak nahi duenari galdetuko dio: <ul style="list-style-type: none"> - Jon zer daukat? Honek, galdera egin beha dio: Pilota da? - Ez, ez da pilota edo Bai, pilota da Beste batzuei galdezka jarraituko du objektua, materiala eta neurria asmatu arte. Behin denak asmatuta daudenean, beste bati galdetuko dio: <ul style="list-style-type: none"> - Maite, zer daukat? - Kristalezko edalontzi txikia daukazu
Zergatik aukeratu duten	Lanketarako dinamika: Ibilbide aldrebestua

azaltzea	<i>Forma hau aukeratu dugu... delako/duelako (Jolasteko balio, oso polita, gauza dekoratibo...)</i>
Behar dugun materiala zerrendatzea	Lanketarako dinamika: Azalpen katea <i>Forma hauek egiteko hau behar dugu: - Goraizak, papera...</i>
Jarraibideak ematea	Lanketarako dinamika: Ariketa urrun <i>Lehendabizi, ondoren, amaitzeko... Moztu behar duzue, itsasi behar da...</i>
Zalantzak argitzea	<i>Zalantzaren bat baduzue? Zerbait galdetu nahi duzue?...</i>

Treatza: Gaztelania

Zein gorputz geometriko azalduko dieten esatea	Lanketarako dinamikak: <ul style="list-style-type: none"> • Kutxa itsua (euskara arloko bera) • Egin nire irudi bera <i>Guk aurkeztuko dizuegun gorputz geometrikoa da</i>
Gorputz geometriko hori deskribatzea	Lanketarako dinamika: <ul style="list-style-type: none"> • Pareko <i>Laukia da, borobila da, bost alde ditu...</i>
Jarraibideak ematea	Lanketarako dinamika: Azalpen katea (luzea) <i>Lehendabizi, ondoren, amaitzeko... Moztu behar duzue, itsasi behar da...</i>

Treatza: Ingelesa

Gorputz geometriko	
--------------------	--

hori deskribatzea	Lanketarako dinamika: <ul style="list-style-type: none"> Egin nire irudi bera <i>Laukia da, borobila da, bost alde ditu...</i>
Jarraibideak ematea	Lanketarako dinamika: Azalpen katea (laburra) <p><i>Lehendabizi, ondoren, amaitzeko...</i></p> <p><i>Moztu behar duzue, itsasi behar da...</i></p>

Testu eredugarria

Matematikak arloan	Antzeko ezaugarriak dituen azalpen bat jarriko diegu bideo batean. Eskulan baten aurkezpena edo izan daiteke. Behin ikusitakoan, atalak bistaratuko ditugu: gaia kokatzea, materiala zerrendatzea eta abar. <p><i>(Pertsona bakarrak egiten duen aurkezpena izan daiteke: gure ikasleei ez diegu eskatuko batak besteari txanda pasa edo galderak egitea, soilik orden batean txandaka azalpen osatu bat ematea. Beraz, ez da beharrezkoa testu eredugarrian talde bat ikustea)</i></p>
--------------------	---

Amaierako produkzioa nola egingo dugu?

Matematikak arloan	Launaka erdira aterako dira. Prestatu duten azalpena emango dute. Atalak aurrez banatuko dituzte eta bakoitzak berea aurkeztu behar du. <p>Hori baino lehen entseguak egitekl aukera izan behar lukete eta guk lagundu.</p>
--------------------	---

5.4– Bigarren Hezkuntzako adibide zehatz baten aurkezpena

Ikasmaila: DBH4

Arloa: GIZARTE ZIENTZIETAKO MINTEGIA

Ekintza komunikatiboa: Muskizko kaleen izenei buruzko bideoak

Testuingurua: Institutu honetako ikasle gehienak Muskizkoak izan arren, ez dituzte ezagutzen bertako kaleetako izenen jatorria eta garrantzia.

Arazoa: Muskizko udaletxeak erakusketa bat egin nahi du, herriko adinekoentzat, herriko kaleei buruz eta institutu honetako ikasleei eskatu zaie parte hartzea, bideoen bidez aurkezpen bat egitea.

Helburua: Baliabide ezberdinetan bilatutako informazioa, elkarrizketak batzuk prestatuz, eta ahozko aurkezpena eginez, idatzizko eta, batez ere ahozko gaitasunak lantzea.

Eginkizuna: Erakusketa horretarako, jasotako eta landutako informazioa, eta familiarekin zein auzokideekin, bideoak grabatuz, elkarrizketak prestatzea, gero erakusketan parte hartzeko, ahozko aurkezpena eginez. Kazetari lana egingo dute eta taldean adostutako elkarrizketak egingo dizkiete senideei, auzokoei... hauei kalean agertzen diren pertsona edo gertakizunei buruzko galderak eginez.

Edukiak: Muskizen kokatutako, garai ezberdinetan, pertsona, gertakizun zein egoera ezberdinen biografia edo garapen historikoak.

Prozedura: Lehenengo gidoi bat prestatuko dute galdera mota ezberdinak prestatzeko. Elkarrizketak bideoz grabatuko dituzte, talde guztiak egindakoa bilduko dute eta muntaketa egin, ondoren, informazio hori aurkezteko prestatu beharko dute. Aurkezpena prestatzeko, kontutan izango dute, batez ere, adinekoak izango direla entzuleak eta testuinguru horretara egokitu beharko dituztela aurkezpenak.

Ekintza komunikatiboa:

Elkarrizketa batzuekin bideo muntai bat egin behar duzue, eta elkarrizketetan agertzen denari buruzko aurkezpen bat egin bideoan bertan. Herriko kaleen izenak eta bertan agertzen diren pertsonaiak kontuan hartuz, gertakizun zein egoera ezberdinen biografia eta garapen historikoa ikusi nahi da. **Bideoa kultur etxean egingo den erakusketa batean jarriko da, eta herritar orok izango du ikusteko eta bertatik ikasteko aukera.**

Faktore dinamikoak:

ENUNTZIATZAILEA	Ikasleak, kazetaria erreportari eta dibulgatzaile roletik
ENUNTZIATARIOA	Herritarrak, eta bereziki adinekoak
XEDEA	Kale izendegia ezagutzea eta jatorria ezagutzera ematea
TESTU-GENEROA	Erreportaia, Elkarrizketa
ERABILERA ESPARRUA	Akademikoa

Plan orokorra (Zer ikusi beharko genuke? Zein atal behar ditu?)

Elkarrizketetan		
ATALA	ZER AGERTU BEHAR DU?	ZERTARAKO
Gaian kokatzeko galderak	Elkarrizketatuari buruzko galderak: izena eta adina, kale horretan bizi ote den, Muskizekoa ote den...	Elkarrizketatua eta gaia lotzeko, eta gertutasuna sortzeko
Kalearen edo pertsonaiaren izenari buruzko galderak	Kalearen izenari buruzko galderak: pertsonai hori nor den ba ote dakien, kale horrek beti izen hori izan ote duen, pertsonai horren garaiari buruz zerbait ba ote dakien...	Kalean izenari buruz eta garai historikoari buruz zer dakien jakiteko

Bideo muntaian		
ATALA	ZER AGERTU BEHAR DU?	ZERTARAKO
Aurkezpena	Egileak eta bideoaren helburuak eta ezaugarriak azaltzea	Ikusleak bideoa zer den jakin dezan
Atal bakoitzaren sarrera	Kalearen izena aipatzea eta deskripzio bat egitea: non dagoen, inguruan zer dagoen...	Lekua eta kalea kokatzea, gertutasuna ematea
Atal bakoitzaren amaiera	Pertsonaiari buruzko azalpena eta garai historikoa kokatzea	Muskizeko historiaren zatiak kale izenen bidez ezagutzeko
Amaiera	Agurra eta sinadura	Amaiera emateko

B1 mailako zer landu dezakegu? Zer da erakusgarri?

- Hitz edo esapide errazak: zenbakiak, prezioak, denbora erreferentzia...
- Giza harremanak eta konplimendua: ... zoriendu, interesa adierazi, goraintziak eman, gauza onak opa... **arreta eskatzea, aholkuak, medikuaren gomendioak, argibideak.....**
- Informazioa jasotzea: komunikabideetako ohar eta iragarkiak
- Informazioa ematea eta eskatzea: ... deskripzioak pertsona eta leku, eguneroko kontuez informazioa, denboran zehar gertatutako kontatzea, iraganeko ekintzak kontatzea, gustuak azalpen laburrak zerbitzuetan...**hurbilekoen deskripaen fisiko eta psikologikoak, prozedurei buruzko azalpenak, gertaera edo sentipenen deskribapenak.....**
- Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea: ... zerbitzuen balorazioa, norbaiti buruzko iritzia eman/eskatu, proposamenei buruzko iritzia, balorazio eta iritzi sinpleak... **arrazoi laburrak, gaiei buruzko azalpen eta argibideak, jarreraren berri eman, ideiak-pertsonak-lekuak alderatzea, zalantza adieraztea, zerbaiti buruzko balioespen edo kexuak..**
- Sentimenduak: ezustea, poza/tristura, aldarateaz informazioa eman, gustukoa den edo ez adierazi, **harridura, maitasuna, beldurra edo kezka, etsipena, esperantza, haserre...**
- Solaskidearengan eragitea: ... debekatu, erregutu, egitekoa proposatu, asmoak adierazi, aholkukak eman/eskatu, **konbentzitu argudiatu...**
- Kontaketak, gertaerak, albisteak, **ipuin klasikoak, kronikak (kirola...), errezetak, jatetxeetako kartak, gutunak (senitarte, lagun, eskari...), egitarauak, turismo gidak, whatsapp, emailak...**
- Elkarrizketa sinpleak: non bizi den, nora doan, zer gustatzen zaion, **familia eta lagunarteko solasaldi eta eztabaidak**
- **Deskribapenak**

Adierazpide testualak

- Interaktibotasuna: Pertsonalak (ni, zu,gu, **plural hurbila**), denborazkoak (gaur, **iaz, hurrengoan, datorren urtean...**), espazialak (hor, han, **hementxe, hantxe...**)
- Konexioa: Hizketa antolatzaileak (ze...), emendiozkoak (eta, ere, **baita...ere**), aurkaritzakoak (baina, ordea, **aldiz, dena den**), ondoriozkoak (**beraz, hau dela eta...**), denbora antolatzaileak (orduan, **behin batean, gaur egun, bitartean**), birformulatzaileak (**alegia, hau da, hobeto esan, ondorioz, azken batean**) hautakariak (bestela, ala), ordena-adierazleak (lehengo, ondoren), zehatzaileak (adibidez, **esaterako**).
- Puntuazioa: galde-harridura ikurrak, bi puntuak, puntua, etenpuntuak, koma.

- Aditz-kohesioa: azalpen eta kontaketa adizkiak (dator, etortzen da, etorri da, etorri zen), ekintza adizkiak, **aginte adizkiak**, **orain geroa (etorriko da)**, bestelako adizkiak.
- Ahots enuntziatzaileak: estilo zuzena, zehar estiloa. Menderakuntza .(e)la, -(e)nik, -t(z)eko, marra luzea, komatxoak.
- Modalizazioa: adizkiak (uste izan, iruditu), iritzi-adberbioak (agian, ziur, seguru, **omen**), adjektiboak (graduatzailak), adjektiboak (ederra, txarra), adizkiak (behar izan, nahi izan, **etor daiteke**), adjektiboa+t(z)ea, aditza (gustatu, lotsatu, maite izan), adberbioak (agian, tamalez), harridura perpausak (nire ustez...)

Zer landuko dugu? Zer neurtuko dugu?

Elkarrizketa	Elkarrizketa bati hasiera emateko galderak	Gaztelanian	Ahoz
	Pertsonai, leku edo gertakari bati buruzko galderak	Gaztelanian	Ahoz
Elkarrizketa	Elkarrizketa bati hasiera emateko galderak	Euskaran	Ahoz
	Pertsonai, leku edo gertakari bati buruzko galderak	Euskaran	Ahoz
Deskripzioa	Leku bat kokatzea	Euskaran	Idatziz
Deskripzioa	Leku bat kokatzea	Ingelesean	Idatziz? Ahoz?
Errelatoa	Pertsonaiak - Garai historikoak azaltzea	Euskaran	Idatziz

Horretaz gain, noski, gizarteko arloan aurre-ikusitako atal guztiak garatuko dira.

Lehen urratsa	
Euskara arloko saio batean aurre-produkzioa egingo dugu eta azalpena eman ere bai	
Aurre-produkzioa	<p>Aurre-produkziorako ekintza komunikatiboa: Elkarrizketa pertsonai historiko bati (simulazio dinamika). Bikoteka jarriko dira eta bikote bakoitzak pertsonai historiko bat hartu behar du, ezaguna egiten zaien norbait. Bikoteko bat kazetaria izango da eta bestea pertsonaia. Batak besteari galderak egin behar dizkio. Agertu behar dute: nor den, zein garaitakoa den, biografia apur bat, zergatik den pertsonai historikoa... Gidoi bat landuko dute, eta ondoren, paperik gabe, elkarrizketak egingo ditugu kalsean.</p>
Ikasleei gaia azaltzea	<p>Euskara arloko saio batean azalpena emango zaie</p> <p>Adibidez:</p> <p>“Gizarten bide grabazio batzuk egin beharko dituzue eta elkarrizketa batzuk garai historikoak kokatzeko. Horri begira,</p>

	hizkuntzetan beharrezko izango dituzuen egitura batzuk landuko ditugu. Adibidez: elkarrizketetan erabil daitezkeen galderak, apalsidko garai bati buruz ari garenean erabil ditzakegun egiturak eta abar"
--	---

Trebatzea: Euskara		
Elkarrizketak (ahoz)	<p>Bistaratzea: zer eta nola egin duten Aurre-produkzioko simulazio ariketan elkarrizketei hasiera emateko zein esamolde eta eredu erabili dituzten galdetuko diegu. Denen artean zerrenda osatuko dugu. Besterik bururatzen zaien galdetuko diegu.</p>	<p>Hizkuntza-jolasa: galdera katea Elkarrizketa hasierak hiru multzotan banatuko ditugu: agurrak, galdera egiteko baimena eskatzea, eta lehen galdera egitea Zerrendak egingo ditugu eta arbelean jarri: agurrak, baimena eskatzea eta lehen galdera egitea Galdera kateak egingo ditugu: lehendabizi agurrekin, gero galdera egiteko baimen eskariekin eta gero galderekin. Amaitzeko, hirurak jarraian egingo ditugu. Galdera katea: batek galdetzen du hurrengoak erantzuten du, hurrengoak galdera aldatzen du, hurrengoak erantzuten du, hurrengoak galdera aldatzen du... 1-Agurra: Kaixo-kaixo, Zer moduz-Oso ondo, Egun on-Berdin... 2-Galdera egiteko baimena: Galdera bat egin nahi nizuke-Bai, ados, Galdera bat egin diezazuket?-Bai, noski, Gauzatxo bat galdetu nahi nizuke... 3-Galdera bat egitea: Hemengo zara?-Bai, hemengoa naiz, Muskizen jaio zinen?-Ba, Muskizen jaio nintzen... 4-Hiru gaiak jarraian: Kaixo-kaixo, Galdera bat egin diezazuket?-Bai, noski, Muskizekoa zara?-Bai, Muskizekoa naiz, Egun on-Berdin...</p>
Elkarrizketak (ahoz)	<p>Hizkuntza-jolasa: argazkiari galderak eta arbeleko zerrenda ezabatzen Argazki bat jarriko diegu (zaharra baina leku eder bat erakusten duena). Hasteko, denon artean zerrenda bat osatuko dugu</p> <ul style="list-style-type: none"> • Leku horretara joan nahiko bagenu, zer galdetu dezakegu? Ba al dakizu non dagoen..?, Nola joan naiteke...?... • Leku horri buruzko informazioa lortu nahi badugu, zein izan daitezke galderak? Zein ziren ohiturak? Garai horretan...? ... • Erantzunak ematerakoan nola has gaitezke? Nik esan diezazuket, Nik dakidana da, Iruditzen zait...Egia esan... 	

	<p>Arbelean zerrenda idatzita utziko dugu eta beste argazki bat jarriko dugu lkasleetak bati beste bati galdera egiteko eskatuko diogu</p> <p>Nahi duen galdera egingo du zerrendatik bat aukeratuz. Erantzuna ematen duenak ere zerrendatik aukeratu behar du. Erabili dituztenak kenduko ditugu.</p> <p>Erantzun duenak beste galdera bat egingo dio beste bati eta horrek erantzun. Hauek ere kenduko ditugu.</p> <p>Modu horretan, zerrenda amaitu arte.</p> <p>Behin baino gehiagotan errepikatu dezakegu.</p> <p>Amaiera aldera edo beste saio batean, berdina egingo dugu baina zerrenda ezabatuz eta buruz eginaz. Zenbat erabiltzeko gai izango dira?</p>	
Deskripzioak (idatziz)	<p>Hizkuntza-jolasa: Hitz debekatua</p> <p>Herriko leku batera nola joan azaldu behar diote kanpotik etorri berria den bati, baina ezin dituzte hainbat hitz erabili: eskuin, ezker, aurrera, ondoan... Adibide bat landu dezakegu denon artean eta gero bakoitzak egin.</p> <p>Binaka edo leku ezberdinak eman, idatzi behar dute eta gero besteei irakurri. Besteek lekua zein den asmatu behar dute.</p> <p>Lekuaren ezaugarriak zein diren ere azaldu behar dute.</p> <p><i>Adibidez:</i></p> <p><i>Institutuan zaude. Ezezagun batek herriko plazara nola joan galdetu dizu. Azalpena eman behar diozu baina ezin dituzu erabili hitz hauek: eskuin/eskuma, ezker, aurrera, ondoan.</i></p> <p><i>Ezezagunak zalantzak argitzeko galderak egiten dizkizuenean ere ezin dituzu hitz horiek erabili.</i></p>	
Errelatoa (idatziz)	Bistaratzea: zer eta nola egin duten	Dinamika: Errelatoa katean osatzen

Trebatzea: Gaztelania	
Elkarrizketak (ahoz)	Euskara ataleko berbera
Elkarrizketak (ahoz)	Euskara ataleko berbera

Trebatzea: Ingelesa	
Deskripzioa (idatziz?)	Euskara ataleko berbera

Testu eredugarria: Gizarten	
Antzeko ezaugarriak dituen bideo bat aurkeztea	Plan orokorra eta erabiltzen diren baliabideak bistaratzea

Amaierako produkzioa	
Bideo grabazioak eta muntaia egitea	Ekintza komunikatiboa bera